

«Gernikako estatutuaren adostasuna zabaldu nahi nuke»

IMANOL PRADALES GIL

EAJren lehendakari gaia

Ez dio bozen ondorengo jokalekuari begiratu nahi oraindik, baina aitortu du PSE-EErekin «eroso» daudela Jaurlaritzan. Politika egiteko bere modua aldarrikatu du, eta «patxadaz» hitz egitea eskatu osasun sistemaz eta azpiegituz.

Aitor Biain

BILBO— Alderdikideek EAJren lehendakari gisa berretsi zutenetik, bere burua aurkezten eta eragileen proposamenak biltzen ari da Imanol Pradales Gil (Santurtzi, Bizkaia, 1975) han eta hemen. «Entzuten eta ikasten» ari dela dio. Proposamen politikoa prestatzeko lan horiek Bizkaiko aldundikoekin uztartzen ari da, azpiegitura diputatu karguari eustea erabaki baitu lehendakariak bozen data iragarri arte. Sabin Etxean hartu du BERRIA.

Zer tarte eman zizuten EAJren lehendakari gaia izan nahi duzun erabakitzeke? Ez zen aurreko elkarrizketarik egon?

Ez. Ordu batzuk baino ez ziren izan. Arratsalde baten izan zen hori, ostiralean, eta hurrengo goizerako nik erantzun bat eman behar nien.

Eta zuzenean ekitaldi publiko batera Urkullurekin, igandean, 26an, Sukarrietara. Oso azkar joan da dena.

Ordu gutxian gauza asko gertatu ziren, bai. Sukarrietako ekitaldira joateko asmoa nuen, alderdikide gisa. Nola aldatu ziren gauzak...

Behin militantziak berretsita, Durangon ekitaldi jendetsu batean aurkeztu zintuzten. Barneratu duzu dagoeneko izendapenak dakarren ardura?

Ari naiz. Durangon ere esan nuen: ardura handia da, eta errespetua zor zaio horrelako erabaki bati. Konfiantza ematen dizute, eta

horrek sortzen duen ardura oso handia da.

Oraindik hauteskunde data zehaztu gabe egoteak ez al dio itzala egiten zure hautagaitzari? Nik esango nuke euskal gizartearen oraindik ez dagoela hauteskunde tentsiorik. Normala da, data zehaztu gabe baitago oraindik. Baina horrek ez dit niri bakarrik itzal egiten, denoi baizik.

Indar Berria leloarekin aurkeztu zinen. Ziklo aldaketa hori igarriko da zure politika egiteko moduetan?

Nork bere modua dauka gizartearen ulertzeko, mezuak partekatzeko, lehentasunak kudeatzeko... Irakurketa propioa egiten dugu guk, eta hori igarriko dela pentsatzen dut. Baina bat gatoz erronkekin, alderdian ardatz nagusiak argi dauzkagu eta.

Aurpegi berrien garaia da, bai, baina emakumezko lehendakariarena ez?

Alderdi bakoitzak bere erabakiak hartzen ditu. Gure kasuan, EAJko emakumeek eta gizonen erabakiak dute ni lehendakari gaitatea. Dena den, nik uste dut euskal politikagintzan emakumeen papera gero eta garrantzitsuagoa izango dela, eta agian hauteskunde hauek ez, baina hurrengoetan ziur nago argazkia beste bat izango dela.

Lehendakari izango bazina, Jaurlaritzaren egituraren non kokatuko zenuke Emakunde? Ondo ikusten duzu Berdintasun eta Gizarte Politikaren Sailaren barruan? Uste dut azpimarratu behar dela



«Osakidetza osasun sistema ona da, baina horrek ez du esan nahi arazorik ez duenik. Onartu behar dugu hori»

«Euskarari dagokionez, beste pauso bat ematea dagokigu: ezagutzatik erabilerarako pausoa eman behar dugu»

«Lan harremanez hitz egin behar dugu, ez lan gatazkez. Horretarako, euskal marko propio bat beharrezkoa da»

Berdintasun sail bat daukagula historian aurreneko aldiz, eta Emakunde hori jokatzeko duen papera garrantzitsua da. Hala ere, ez da hainbeste non kokatzen den erakunde bat, baizik eta zer-nolako politikak garatzen diren, eta, nire ustez, Emakunde berak eta Berdintasun sailak garatzen dituzten politikak egokiak dira. Osakidetza jarri duzu lehentasun gisa. Ez al da kontraesana EAJren lehendakari gaia Osakidetza arazo bat duela onartzea?

Osakidetza, osasun sistema bezala, sistema sendoa da, ona. Eta konparatzen badugu beste batzuekin, are gehiago. Hala ere, horrek ez du esan nahi arazorik ez duenik. Batzuk estrukturalak dira, euskal gizarte zahartzen ari delako; egokitu beharra daukagu. Baina pandemia bat ere izan genuen, eta horrek sistema guztiei eragin zien, gureari ere bai. Beraz, onartu behar dugu gauza batzuk hobetu egin behar direla. Bi dira nire ustez lehentasunak: lehen arreta eta itxaron zerrondak. Baina pandemia baino lehenago ere jakina zen gizarte zahartzen ari zela. Ez al dago planifikazio falta bat hor?

Datu bat emategatik: orain dela hamar urte, Osakidetza 31.000 pertsona ari ziren lanean, eta gaur egun 40.000. Horrez gain, baliabideei begira ere %50 handitu da inbertsio publikoa azkenengo hamarkadan. Beraz, uste dut Osakidetza aurrera egin duela. Baina, ziurrenik, hainbat esparru berrantolatatu beharko ditugu, efizienteagoak izateko.

Behin-behineko langile asko daude oraindik, dena den. Zer esango zenioke urtebetean Osakidetza dozena bat kontratutik gora sinatu duen langileari?

Momentu honetan egiten ari diren lan eskaintza publikoekin, aurreikusten da 11.000 langile inguru finko egingo direla. Uste dut hori dela bidea.

Itxaron zerrondak murriztu dira, bai, baina pribatuetara bidalita gaixo asko. Pribatizazioarako urratsa ikusi dute batzuek.

Ez nago ados; ez nuke esango

hori gertatu denik. Euskal osasun sisteman ehun eurotik bost erabiltzen dira pribatuetarekin elkarlanerako.

Auzitegiaren ebazpen argitara, Euskararen Legeak berme gehiago behar dituela uste duzu?

Euskararekin adostasun zabala egon da herri honetan, eta ebazpen horiekin gertatzen ari dena oso kezagarria da. Adostasun soziala eta politikoa baldintzatu nahi dute, eta horren kontra gaudela. Bilboko manifestazioan ikusi zen euskal gizartearen ahotsa. Orain beste pauso bat ematea dagokigu: ezagutzatik erabilerarako pausoa eman behar dugu, eta hori adostasunak oso garrantzitsuak izango dira. Ezin ditugu horiek zalantzan jarri.

Bizkaiko azpiegitura diputatu zara oraindik. Obra handiei lotuta agertu izan zara: lehendakari gaia bezala, zer irudi transmititzen duzula uste duzu?

Hori euskal gizarteak jakingo du. Hala ere, azpiegiturak garatzen direnean bizi kalitatea ere hobetzen dugu. Zera esan nahi dut: inbertsio publikoaren bitartez lurralde bat eraldatzen ari gara. Baina, batzuetan, zementua dela esanez laburbiltzen da hori. Ez, ongizatea hobetzea ere bada.

Urdaibaiko Guggenheim, zuk esana da: «Proiektua hobeto azaltzea falta izan zaigu». Herri-tarrek zer ez dute ulertu?

Nik uste dut inportanteena dela proiektuak azaltzea tokatzen denean. Ildo horretan, saiakerak egin ditugu azken aste hauetan proiektuaren inguruan dauden onurez ere hitz egiteko. Hori da bidea. Hala ere, proiektua ez dago oraindik guztiz definituta, eta aldundi gisa hori ere partekatu dugu Busturialdeko alkateekin.

Zeintzuk dira onurak?

Biosferak badauzka ingurumenari lotutako zauri batzuk orain, eta proiektuak aukera ematen du horiek sendatzeko. Gernikan badago akuifero bat industrializazio garaitik kutsatuta dagoena, padurak lehortuta daude, biosferan bertan ontziola bat dago... Proiektuaren bitartez hori guztia

errekuperatzeko aukera dago. Honetaz patxadaz hitz egitea eta gizartearekin partekatzea inportantea da.

Nekazarien aldarrietako bat energia berriztagarrien azpiegiturei lotuta dago. Zer esango zenieke?

Euskal erakundeak beti saiatu gara nekazariengandik gertu egoten eta laguntzen. Izan ere, sektore horrek ez ditu soilik elikagaiak ekoizten; gure nortasunaren ispilua ere bada. Baina trantsizio garai batean gaude, eta egokitu beharra daukagu denok.

Pello Otxandianok sektore publikoaren lidergoa aldarrikatu du, eta «ekonomia zuzentzeko zeregina» bere gain hartu behar duela uste du. Zer iritzi duzu?

Interbentzionismoaz hitz egin zuen, eta nik ez dut horretan sinisten. EAJk garatu duen politika izan da arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaz sustatzea. Industria politikan 1980ko hamarkadatik gaur egunera arte egin dugun bidea da horren adibidea. Hori da bidea.

LABekin batzartu zen Urkullu; ELAekin, ordea, ez. Zuk zer harreman izan nahiko zenuke bi sindikatu horiekin?

Sindikatuak eragile garrantzitsuak dira, denak. Hori esanda, nik elkarrizketaren eta adostasunaren kulturaren sinisten dut. Lan harremanez hitz egin behar dugu, ez lan gatazkez. Eta, horretarako, euskal marko propioa beharrezkoa da. Denak izan nahiko nituzke bertan. Ni prest nago guztiekin hitz egiteko eta adosteko.

«Populismotik aldentzea» eskatu zenuen. Zer esan nahi zenuen? Uste dut orokorrean European eta mendebaldean, oro har, hizkuntza populista gehiegi entzuten ari garela, bai ezkerreko alderdian eta bai eskuinekoetan. Eta tentazio bat dago hemen ere lengoia eta hizkuntza hori erabiliz mezu populistak zabaltzeko. Uste dut euskal gizarteari zintzo eta leial hitz egin behar zaiola.

Baina bertako alderdiek mezu horiek zabaltzen dituzte?

Etxebizitzaren arazoa, esaterako,



erronka handia da. Baina okupazioa al da horren irtenbidea? Galdera jartzen dut mahai gainean. Niretzat hori ez da bidea.

Gehiengo osoa galduko bazenu-te, PSEk beste bide batzuk hartuko dituen beldur zara?

Ez nago horretan pentsatzen orain. Aste hauek proposamenak biltzeko eta eragile ezberdinekin egoteko baliatzen ari naiz. Nire helburua da proposamen on bat prestatzea eta aurkeztea.

EAJrengandik urrunduta nahian dabil Andueza...

Bakoitzak bere estrategiak dauka. Gu alderdi serioa gara, eta emandako hitza betetzen saiatzen gara. Alderdi sozialistarekin akordioak ditugu udaletan eta aldundietan; Jaurilaritzan ere gobernu koalizio bat daukagu, eta eroso gaude. Baina bakoitzak jakingo du zer egiten duen.

Bi urtean Gernikako estatutua osatzea lortuko duzuelakoan zaude? Pedro Sanchezek lehen ere eman zizuen bere hitza, eta ez zuen esandakoa bete.

Ez da hitza bakarrik, baizik eta sinatuta dagoen akordio bat dagoela. Lehenengo mugarrira hiru transferentziekin dator —aldierietako trenenak, unibertsitate tituluen homologazioa eta asilo eskarien kudeaketa—, eta denbora agortzen ari da. Hor ikusiko dugu betetzeko nahia duten edo ez. Baiezkoan nago ni.

Eta gero, zer? Independentistatza jo duzu zure burua...

Guk gure bidea markatuta daukagu: euskal nazioaren aitortza, aldebikotasuna, bitartekari baten bermea eta erabakitzeko eskubi-dearen onarpena. Hori da nik defendatzen dudana.

Estatutua berritzeko lantaldea osatu beharko dela ere esan duzu. Gustatuko litzaidake Gernikako estatutuaren adostasuna zabaltzea. Ona da herri honentzat. Borondate politikoa bilatu behar dugu, hori da gakoa. Horrela bideratuz gero, aukerak izan ditzakegu, estatuan ere aukerak zabaltzeko direlako legealdi honetan. Saia-kera egin behar dugu, ezinbestean. ●